



nola hartu diren kontuan HerritarreN ekarpenak antsoaingo eremu publikoa hobetzeko

Maiatzean bukatu zen Harrobiak kalean, Harrobiak zeharkalean, Arturo Campion kalean, Nafarroa kalean, Euskal Herria plazan, Larrazko plazan, Dorrondea kalean eta Lerin kaleko ingurunean lanak egiteko parte-hartze prozesua.

Aste hauetan zehar, Udalak ekarpenak aztertu ditu proiektuko teknikari eta udal arlo inplikatuena laguntzaz. Oraingo erantzun honek onartutako edo indartutako neurriak azaldu nahi ditu: zer neurriak zehaztuko diren lanak prestatu bitartean, zer proposamenak aztertzen ari garen oraindik eta zer eskakizunek gainditu dituzten lan hauen helburuak.

Galdeketa 200 proposamen baino gehiago jaso zituen guztira; horretarako galdetegiak, kaleko elkarriketak, informazio-jardunaldi bat eta lan-eremuetako ibilbideak erabili ziren. Kotsulan haurrei eta gazteei zuzendutako galdetegi berezi bat sartu zen, Harrobin bildu zena, eta 51 erantzun ekarri zituen.

Proiektuak ez ziren zuriatik abiatzen. Antsoaingo 2024–2030 Plan Estrategikoan, Hiri Mugikortasun Jasangarriaren Planean eta Antsoaingo Kaleak-en bidez definitutako espazio publikoaren ereduaren kokatzen dira. Parte-hartzeak kaleen eguneroko

erabilerak hobeki ezagutzeko, arazo zehatzak antzemateko, lehentasunak berresteko eta obren azken emaitza eta kudeaketa hobeki prestatzeko balio izan du.

Jarraian zerrendatzen ditugun neurri guztiak ez dira sartu kontsultaren ondorioz. Batzuk aurreikusita zeuden eta herritarren ekarpenek haien garrantzia berretsi dute. Beste batzuk obraren antolamenduan zehaztuko ditugu, oraindik ere aztertzen ari direlako.

ZER PROPOSATU DIGUZUE?

Jasotako eskari gehienak lau talde handitan sailkatu ditzakegu:

1. Kaleetako segurtasuna eta irisgarritasuna handitzea. Oinezkoen pasabideei buruzko, ibilgailuen abiadurari buruzko eta espaloi hertsiei buruzko kezkek errepikatu dira; halaber, ibilbideak jarraitzeko arazoak eta adineko pertsonen, mugikortasun murrizta dutenen eta orgatxoak erabiltzen dituzten familien zailtasunak ere ugari jaso dira.

2. Argi gehiago eta segurtasun-sentsazio handiagoa. Hainbat ekarpenek gutxi argiztatutako puntuak, gauez mesfidantza sortzen duten ibilbideak eta etxebizitzetan eragozpenik sortu gabe hobeto argiztatzeko beharra adierazten dute.

3. Berdegune gehiago, itzalpe, eserleku eta egoteko toki gehiago. Kale atsegin bat eskatzen da, hitz egiteko edo elkartzeko guneekin. Eskaera hori bereziki nabarmena da haurren eta gazteen galdetegietan.

4. Aparkalekuen, sarbideen eta obren kudeaketa egokia. Kezka sortzen du atari, garaje eta saltokietako sarbideen mantentzea, zamalanen antolakuntza eta geldialdi laburrak; argitu nahi da zer geratuko den aparkalekuekin eta nola informatuko den mozketei eta aldaketei buruz lanek irauten duten bitartean.

Haurrek eta gazteek gauza batzuk nabarmendu dituzte: ibilbide seguruak eskolara eta kirol instalazioetara; bizikletaz, patinetez edo skatez mugitzeko erraztasuna; taldean biltzeko moduko eserlekuak, eta lekuz kanpo sentitu gabe egoteko espazioak.

NOLA HARTZEN ARI DIRA KONTUAN EKARPEN HORIEK?

Kale irisgarriagoak eta trafiko lasaiagoa

A Gunean oinezkoen ibilbideei jarraipen handiagoa emanen zaie, eta espaloien eta galtzadaren arteko hesiak murriztuko dira. Plataforma bakarrak, zoladuraren aldaketek, espazioaren berrantolaketak eta landareen eta hiri-altzarien presentziak abiadura moteltzera behartuko dute, eta lehentasuna emanen diete oinezkoei.

Larrazko eta Dorrondetan oinezkoen pasabideak hobetuko dira, batez ere eskola, Idaki eta kirol instalazioetarako ibilbideetan. Obra horrek barne hartzen ditu pasabide goratuak, trafikoaren antolamenduaren aldaketak eta oinezkoen eta ibilgailuen arteko ikuspena hobetzeko neurriak.

Aipatutako gai batzuek, hala nola Harrobiak eta Artzain Jainkotiarra kaleen arteko bidegurutzearen berrikuspen osoak, edo ingurabide-errepiderako sarbideen berrantolaketa orokorrak, egungo obren eremu zuzena gainditzen dute. Bilduta geratzen dira, etorkizunean mugikortasuneko eta espazio publikoko proiektuen bidez aztertzeko.

Landare, itzalpe eta atsedengune gehiago

Proiektuek berrikuntzak dakartzate: zuhaitz berriak, landareentzako parterreak eta euri-ura hobeki jaso eta iragazteko zolak. Hirigunetara egokitutako landa-motak eta udalerrian ezartzen ari diren espezieak erabiliko dira, landa-multzo iraunkorrak, mantentze egoki baterako onargarriak.

Zuhaitzen kokapena eta tamaina egokituko dira kaleen zabalerara, fatxaden hurbiltasunera, etxebizitzetako argi-sarrerara, bidegurutzeetako ikuspenera eta mantentze-beharretara.

Orobat, bankuak eta egoteko beste elementu batzuk gehituko dira. Atsedeen hartzeko eta egoteko leku erabilgarriak egotea bilatuko da, bizkarraldea eta beso-euskarria duten banku irisgarriak barne, atariak, dendak eta oinezkoentzako ibilbideak blokeatu gabe.

Argiteria hobea

A Gunean argiteria publikoa berrituko da, eta B Gunean, berriz, puntu berezietan argiztapena indartuko da. Helburua ez da bereizi gabe gehiago argiztatzea, baizik eta argi bateratuagoa lortzea: ibilbideetan, bidegurutzeetan, sarbideetan eta egonlekuetan argitasun hobea lortzeko.

Argien orientazioak eta erregulazioak saihestu egin beharko du argia etxebizitzetara barrualdera proiektatzea, ahal den neurrian bederen. Lerin kaleko argiztapena hobetzeko eskaera ere jasota dago, baina kale horren zati bat ez dago aurreikusitako lehen jarduketaren barruan.

Obretako sarbideak eta informazioa

Lanak zatika antolatuko dira eragozpenak murrizteko eta atarietako, etxebizitzetako, garajeetako, dendetako eta zerbitzueta sarbideak irekiak uzteko; betiere baldintza teknikoek eta segurtasunak aukera ematen badute.

Oinezkoen behin-betiko ibilbideak prestatuko dira, seinale, hesi, arrapala, pasabide edo ibilbide alternatiboen bidez. Halaber, larrialdi-zerbitzuek, zaborren bilketak eta funtsezko beste zerbitzu batzuek ere sartzerik izanen dute.

Lanen segida zehatza ez da itxiko harik eta obra egiteaz arduratuko den enpresa hautatuko ez den arte, ezta plangintza Iruñeko Udalarekin, zuzendaritza teknikoarekin eta Iruñerriko Mankomunitatearekin koordinatu arte.

Lanak hasi aitzin, informazio zehatza zabalduko da honako gaiei buruz:

- Lanen aldiak eta behin-behineko datak.
- Itxiko diren kaleak eta zatiak.
- Zirkulazio mozketak eta behin-behineko aldaketak.
- Oinezkoentzako ibilbide alternatiboak.
- Atari, garaje eta saltokietarako sarbidea.
- Aparkalekuen aldi baterako aldaketak.
- Zamalanerako tokien eta geldialdien berri.
- Informazio-kanalak kontsultak argitzeko eta gorabeheren berri emateko.

Informazio hori eguneratuko da lanak egitean aldaketa nabarmenak gertatzen badira.

Aparkalekua, zamatanak eta geldialdi laburrak

A Guneko lanek aparkalekua murriztuko dute eta horrek berrantolaketa ekarriko du. Erabiltzeko eremua mugatua da, eta proiektuak lehentasuna ematen die oinezkoen segurtasunari, irisgarritasunari, landareei eta egoteko lekuei.

Inguru horretan alternatibak aztertzen ari dira, hala nola, hiri-inguruko aparkalekuak eta erregulazio-modu berriak. Oraindik ez dago egina kenduko diren tokien behin-behineko balantzea, beraz, ez litzateke bidezkoa kopuru bat ematea une honetan. Azterketa itxita dagoenean emaitzaren berri emanen da.

Etxeetako, garajeetako, eta zerbitzuetarako sarbideak utziko dira. Halaber, zamatanak eta erosketak egiteko, adineko jendearentzako, zainketarako edo mailetak jasotzeko geldiuneak ere antolatuko dira. Aurreikusita dago Arturo Campionen aparkaldi mugatuko guneak ezartzea; kirol- eta eskola-inguruneetarako Muxu & Go eremuak erabiliko dira, gehienbat bigarren lerroko aparkatzeak saihesteko eta segurtasuna hobetzeko.

Oinezkoentzako pasabide goratuak eta beste konponketa batzuk egonkorragoak izanen dira. Horrexegatik, zehaztasun gehiagoz aztertuko dira burutu baino lehen.

Lehen hilabeteetan zehar, oinezkoen segurtasunari, trafikoaren abiadurari, aparkalekuaren egokitasunari eta irisgarritasunari begiratuko zaie bereziki, bai eta oinezkoen, bizikleten, patineteen eta ibilgailuen arteko harremanari eta hiritarrek aurkeztuko dizkiguten kexei ere.

NON DAGO OBRA-LAN HAUEN MUGA?

Prozesuan zehar beste ekarpen batzuk jaso dira: zaratak, terrazak, ordutegiak, zikinkeria, txakurren gorotzak, edukiontziak, bigarren lerroa eta bizikidetzako beste arazo batzuk.

Planifikazioa lagungarria izan daiteke espazioa, ibilbideak, zamalanetarako eremuak, terrazak eta hiriko altzariak hobeki antolatzeko. Hala ere, arazo horietako batzuek udal zerbitzuen mantentzea, arautzea, ikuskatzea, garbitzea eta jarraipena eskatzen dituzte.

Ekarpen horiek ez dira baztertzen, baina espazio publikoaren geroko kudeatzeren bidez konponduko dira, eta ez soilik obren bidez.

BURUTUKO EZ DIREN ESKARIAK

Ezin izanen diogu eutsi gaur egun dagoen aparkaleku kopuruari, ez eta kaleak udalerria zeharkatzeko ibilbide azkar gisa uzteari ere, baldin eta horrek irisgarritasunari, oinezkoen segurtasunari, landareei edo egoteko tokiei eragozpenak sortzen badizkie.

Udalak onartu duen ereduak lehentasuna ematen dio oinez ibiltzeari, etxebizitzetara eta saltokietara sartzeari, eguneroko joan-etorriak egiteari eta kalea bizikidetzarako toki gisa berreskuratzeari. Aparkatzeko, zamalanak egiteko eta ibilgailuan sartzeko beharrak marko horretan antolatu behar ditugu, ezin dute kaleen diseinu orokorra baldintzatu.

HURRENGO PAUSOAK

Erantzun honek diseinuari buruzko eta lanen lehentasunei buruzko parte-hartze aldia ixten du, baina ez hiritarrei informazioa ematen segitzea.

Lanak hasi aitzin, komunikazio berezi bat egingen da datak, zatiak, eragozpenak, sarbideak, aparkatzeko alternatibak azaltzeko eta informazio-kanalen berri emateko. B Gunean, halaber, jarduera taktikoaren eta egingen diren doikuntzen berri emanen da.

Mila esker parte hartu duzuen guztioi. Zuen ekarpenei esker, identifikatu ahal izan baititugu, azken diseinuan ez ezik, geroko kudeatzean zaindu beharko ditugun gai zehatzak.

Antsoaingo Udala / Ayuntamiento de Ansoáin